

'Hodeietan' dago informazioa

GERO ETA JENDE GEHIAGOK GORDETZEN DU INFORMAZIO DIGITALA WEB ORRIETAN, ABANTAILA ASKO DITUELAKO, JAKINA, BAINA NEURRI BATZUK HARTU BEHARRA DAGO, HALA ERE



Etxe bakoitzak ez dauka elektrizitate sorgailu bat. Gehien-gehienetara urrutiko zentraletatik iristen da elektrika indarra. Erabiltzaileok ez dugu jakiten non sortzen den eta nola ailegatzen den gurera, baina badakigu hantxe agertuko dela argia etengailua sakatuz gero. Gaur hala da, baina beti ez da berdin izan: iraultza elektrikoaren hastapenetan, ez zegoen banaketa-sare bat etxe guztiak hornitzeko, eta, ondorioz, etxe eta enpresa bakoitzak sortu ohi zuen bere elektrizitatea. Informatikaren arloan ere antzeko aldaketa gertatzen ari da. Informazioa eta programak (argazkiak, bideoak, testuak, irudi-editoreak, testu-lanketako programak...) urrutiko zerbitzarietan gordetzeko joera nagusitzen ari da, etxeko ordenagai-

luan eduki beharrean. Edozein nabigatzailean helbide bat idatzi, eta hantxe agertuko da guk nahi dugun informazioa.

Hodei informatikoa terminoa erabiltzen da fenomeno hori adierazteko, alegia, informazioa, gero eta gehiago, han nonbait *hodeietan* bilduta dagoela irudikatzen. Orain dela gutxi arte, erabiltzaile bakoitzaren informazio guztia etxeko ordenagailuaren disko gogorrean bilduta egon ohi zen, eta Internet erabiltzen zen, asko jota, artiboak bidaltzeko ordenagailutik ordenagailura. Gaur egun, berriz, informazio hori guztia ez da gordetzen ordenagailuan soilik; argazkiak, abestiak, testu-dokumentuak edo bideoak, zernahi dela ere, banatu egiten dira ordenagailuaren eta sareko zerbitzu ugarien artean. Erabiltzaileak argazki bat argitaratzen duenean *Flickr* izeneko gunean edo bideo bat jartzen duenean *Youtube* zerbitzuan, milaka zerbitzari betetzen ari da bere informazio eta artiboekin, eta, aldi berean, disko gogorrari arindu bat emateko aukera dauka. Ordenagailuak utzi egiten dio jardura digitalaren erdigune izateari, eta tresna izatera igarotzen da, informazioa gordetzeko eta partekatze balio duten webguneetara iristeko bitarteko.

Abantailak

Lagunarte batean ateratako argazkiak edo bideoak sareko zerbitzuetan jar ditzakegu, *Flickr* gunean, adibidez (argazki albumak sortzeko eta sarean partekatze balio du), edo *Youtube* delakoan (argazkiak beharrean, bideoak jartzeko balio du), edo gizarte sarearen batean (*Facebook*-en, esaterako), eta abantaila bat baino gehiago lortu ahal izango dugu. Hasteko, lana kenduko diogu



ordenagailuaren disko gogorrari: ez du informazio guztia gordetzen ibili beharrik, eta leku gehiago izango du garrantzi gehiago izan dezaketen beste artibo batzuk gordetzeko. Disko gogorrak gaitasun mugatua izaten du, eta web zerbitzuek, aldiz, guztiak batera hartuta, biltegi ia mugagabeak izan daitezke. Horrez gain, beste abantaila bat ere badu: etxeko ordenagailua matxuratu bazez, sarean jarri dugun informazioa ez dugu galduko. Zerbitzu hauek, beraz, segurtasun kopien funtzioa ere bereganatzen dute askotan.

Posta zerbitzu batzuek mezu guzti-guztiak gordetzen dituzte, jaso eta bidali ditugunak, eta haiei atxiki zaizkien artiboak ere bai, eta horri esker, erabiltzaileak badaki ez duela nolahi galduko han daukan informazioa (**Gmail**, **Hotmail** edo **Yahoo!Mail** zerbitzuek, esaterako, halaxe funtzionatzen dute). **Zyb** izeneko zerbitzuak, berriz, telefono zenbakiak eta helbide elektronikoak gordetzeko balio du. Beste zenbaitek argazkiak gordetzeko balio dute (*Flickr* eta *Photobucket*), eta beste aplikazio batzuek ofimatika-baliabideak eskaintzen dituzte: **Google Docs** eta **Zoho** izenekoetan, adibidez, dokumentuak gordetzeko eta haiekin lan egiteko modua daukate erabiltzaileek.

Informazioa sareko zerbitzuetan gordetzeak abantaila gehiago ere baditu, eta oso aintzat hartzekoak dira horietako batzuk. Informazioa sarean dagoenez, erabiltzailea edozein ordenagailutatik sar daiteke hara, eta ez soilik etxetik. Lagun baten etxean egon daiteke edo ziberkafe batean, eta beti eskura edukiko du sarean gordeta daukan informazioa. Batzuetan ordenagailu batetik sartu

beharko du, baina zenbaitetan, esku telefonoaren bidez ere egin ahal du. Horixe du *hodeiak*: non jakin ez arren, han dago beti, eta esku-eskura.

Nork bere informazioa beti erabilgarri edukitzeaz gain, beste erabiltzaileekin partekatze aukera ere ematen du *hodeiak*. Zerbitzura sartzeko pasahitza zein den esaten badiogu, guk han gorde ditugun argazkiak eta bideoak ikusi ahal izango dituzte eta abestiak entzun. Internautek ez dute ibili beharrik artibo horiek euren ordenagailura ekartzeko; eurak joaten dira artiboak dauden lekura, eta, ondorioz, banda zabala ez da hainbeste zamatzen eta moteltzen. Oporretako argazkiak mezu elektronikoaren bidez bidaltzen aritu beharrean, erabiltzaileak sarean jar ditzake, ongi babestuta, hark nahi duenak soilik ikus ditzan.

Pribatutasuna zaindu beharra dago

Abantailak abantaila, zerbitzu hauek ez dira arriskugabeak; sarbide erraza dute oso, eta neurriak hartu ezean, informazioa nor-nahiren esku gera daiteke, eta horrek kolokan jartzen du pribatutasuna. Internet Sozila deitzen duten horietako zerbitzuak erabiltzen digunean, eta horien bidez informazioa gordetzen eta partekatzen dugunean, besteren esku uzten ari gara hori guztia, zerbitzu horiek kudeatzen dituzten enpresen esku, eta horiek zintzo jokatu dutela pentsatzea baino ez zaigu geratzen. Konfiantzako zerbitzu batek kontratu bidez bermatu behar dio erabiltzaileari lege-arauen barruan zainduko dituela haren datu eta informazio pribatuak; hau da, ez dizkiola inori salduko, ez publizitate-erabilera emateko (spam moduan, nagusiki), ez beste

ezertarako. Zerbitzu horien esku ezer utzi aurretik, arretaz irakurri behar dira erabilera-baldintzak.

Segurtasun neurririk onena zentzuz jokatzea da. Jabetu behar dugu informazioa zerbitzu jakin batean gordetzen ari garela, eta horrek arriskuan jar dezakeela gure pribatutasuna, edo beste pertsona batzuen eskubideak urratu ditzakeela. Gauzak ongi egite aldera, ez gure igo behar gurea ez den artibo bat, baldin eta aurrez baimena eskatu ez badiogu jabeari; beste pertsonen irudiari eragiten dioten artiboak ere ez genituzke jarri behar, ezta erabilera-baimena mugatuta dutenak ere.

Zerbitzu bereziak

Zenbait zerbitzuek segurtasun kopiak egiteko aukera eskaintzen diote erabiltzaileari. Disko gogorreko artiboak beren zerbitzarietan gordetzeko aukera ematen dute, eta informazioa modu automatikoan sinkronizatzen dute; hau da, ordenagailuan artibo bati aldaketaren bat egiten badiogu, segurtasun kopian ere aldatu egiten da. Gainera, segurtasun maila handiak eskaintzen dituzte, eta nekez lapurtuko du inork informazioa. Zerbitzu horietako gehienek badute doako bertsioa ere, oinarri-oinarizkoa, eta hilean dokumentu kopuru mugatu bat igotzeko eta gordetzeko modua ematen dute; ordaindutako zerbitzuek hilean artibo gehiago igotzeko aukera ematen dute, eta nahi adina gorde daitezke, mugarik gabe. Honako zerbitzu hauek dira aipagarrienak: **Drop Box**, **Wuala**, **Mozy** eta **Windows Live Mesh** (Microsoft-en Windows Live zerbitzuan barneratua dago). //